
Ardurako mailak eta gainerako lanpostuetan dagoen sexuaren arabera banaketa aztertuz gero, hau adierazi behar dugu: alde batetik, kargurik gorenean emakume bat dago; bestaldetik, langileen artean emakumeak nagusi izatea kategoriatan guztien ezaugarria da, biren kasuan izan ezik: Zuzendaritzako postuak (% 44,44 emakumeak eta % 55,56 gizonak), eta teknikariak (% 50 emakumeak eta % 50 gizonak). Bi kategoriatan horietan gizonak dira nagusi, eta kategoriatan paritarioak dira.

Analizando los niveles de responsabilidad y resto de puestos de acuerdo a su distribución por sexo, cabe señalar lo siguiente: por un lado, el máximo cargo está ocupado por una mujer; por otro, la feminización de la plantilla se mantiene en todas las categorías salvo en dos: puestos directivos (44,44% de mujeres y 55,56% de hombres) y personal técnico (50% de mujeres y 50% de hombres), donde el peso de los hombres aumenta, siendo categorías paritarias.

Distribución de los niveles de responsabilidad por sexo



3.- JARDUERAK/GAITASUNAK

Uliazpin eskaintzen den zerbitzua kontuan izanda –berez, neurri handian, arreta ematen zaion pertsonen etxebizitza–, adierazi behar dugu ia funtsezko gaitasun guztiak sartuta daudela, baina garrantzitsuenak hauek izan daitezke: Osasuna, etxeko espazio egokia eta segurua, denbora libre, zainketa eta komunitatean parte-hartze soziala.

3.- ACTIVIDADES/CAPACIDADES

Considerando el servicio que presta Uliazpi, que en gran medida supone de hecho la vivienda de las personas que atendemos, debe señalarse que se consideran prácticamente la totalidad de las capacidades esenciales, si bien las más significativas pudieran ser las siguientes: salud, espacio doméstico adecuado y seguro, tiempo libre, cuidado y participación social en la comunidad.

4.- JARDUEREN AZTERKETA

- Esan dezakegu Uliazpin arreta ematen zaion taldea detektaturik dagoela osorik, eta aldi-aldian aztertzen da, Aldundiko arlo horretako

EMAITZEN

4.- ANÁLISIS DE RESULTADOS DE ACTIVIDADES

- Podemos señalar que el colectivo al que atiende Uliazpi está en su totalidad detectado y es analizado periódicamente, en coordinación

zerbitzuarekin koordinatuta.

- Zerbitzuaren kudeaketa hainbat adierazleren bidez kontrolatzen da, Uliazpi sortu zenetik ia definituta baitago, eta emaitzak era sistematikoan bildu eta aztertzen dira.

2011. urterako dagoeneko, burutu den arduradun taldearen azterketan, kontuan hartu da genero-ikuspegia, eta hainbat adierazle bereizi dira horren arabera (2. eranskina).

5.- BERDINTASUNEAN BETETZE-MAILARI HAUSNARKETA

Uliazpiko Berdintasun Planean, hainbat neurri eta/edo ekintza ezarri dira, Uliazpi kudeatzeko 2010-2011 aldiko Planean sartu direnak dagoeneko, adibidez, adierazleei buruz gorago adierazi duguna.

Guztira 18 ziren neurri eta/edo ekintzetatik 6 garatu dira 2010ean, eta 2011ko irailean garatutako ekintzen balantzea 9koa da. Beraz, garatutako neurrien guztizkoa 15 da.

Bestalde, aipatutako planean aurreikusitako beste ekintza edo neurri bat gauzatzeko azken fasean dago: sexu-jazarpenaren aurrean edo sexuaren ziozko jazarpenaren aurrean egiten den prozedura edo protokoloa berraztertzea. Protokoloa Pertsonen Prozesu Taldeak berraztertu du, modu ez formalean Aldundiko Berdintasun Zerbitzuan kontsulta egin da, eta bertan egindako iradokizunak gehitu dira; eta langileen legezko ordezkariak helarazi zaio berriki, entzun ahal izateko. III. Eranskin moduan gehitu dugu.

con el correspondiente servicio de Diputación.

- La gestión del servicio está controlado por una batería de indicadores que se definió desde prácticamente la creación de Uliazpi y se recogen, analizan y revisan los resultados de forma sistemática.

Ya para el presente año 2011, en la revisión del Cuadro de Mando llevada a cabo, se ha considerado la perspectiva de género, y se ha realizado una desagregación de varios indicadores atendiendo a ello (Anexo 2).

5.- REFLEXIÓN EN TORNO AL GRADO DE CUMPLIMIENTO EN MATERIA DE IGUALDAD

En el Plan de Igualdad de Uliazpi se establecen un conjunto de medidas y/o acciones, las cuales han sido ya integradas en el Plan de Gestión de Uliazpi para el bienio 2010-2011, como por ejemplo, lo anteriormente dicho referente a los indicadores.

De un total de 18 medidas y/o acciones, en el 2010 se han desarrollado 6 y a septiembre de 2011 el balance de las acciones desarrolladas es de 9. Por tanto, el total de medidas desarrolladas asciende a 15.

Además, está en su fase final la ejecución de otras de las acciones o medidas previstas en el citado Plan: la revisión del procedimiento o protocolo de actuación ante el acoso sexual o por razón de sexo. Éste ha sido revisado por el Equipo de Proceso de Personas; se ha consultado, informalmente, al Servicio de Igualdad de Diputación, incorporándose las sugerencias hechas por el mismo; y, ahora, se ha entregado al la representación legal del personal para ser oída. Se acompaña como Anexo III.

C.4. OGASUNA ETA FINANTZAK

C.4. HACIENDA Y FINANZAS

1.- Sarrera:

a.- Programak sailkatzeko eta haiek garrantziaren eta aurrekontu pisuaren arabera hautatzeko erabilitako irizpideak

Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2012ko aurrekontuak ondoko programak biltzen ditu:

1.- Introducción:

a.- Descripción de la clasificación y selección de los programas en función de su relevancia y peso presupuestario

El presupuesto de 2012 del Departamento de Hacienda y Finanzas se estructura en los siguientes programas:

PROGRAMA / PROGRAMA	AURREKONTUA PRESUPUESTOS	PISUA PESO
01.- Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Hacienda y Finanzas	10.603.614,00	0,31%
02.- Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa/ Tribunal Económico-Administrativo	1.187.835,00	0,04%
10.- Zerga Administrazioa/ Administración Tributaria	22.690.011,00	0,66%
11.- Iruzurraren aurkako plan berezia/ Plan Especial de Lucha contra el Fraude	4.459.745,00	0,13%
20.- Aurrekontuak eta Finantzak/ Presupuestos y Finanzas	3.777.286,00	0,11%
21.- Zor Publikoa/ Deuda Pública	67.565.000,00	1,97%
30.- Zerga eta Finantza Politika/ Política Fiscal y Financiera	1.708.447,00	0,05%
31.- Erakundeekiko Konpromisoak/ Compromisos Institucionales.	3.311.625.662,00	96,73%
Guztira / Total	3.423.617.600,00	100,00%

Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontuak aurrekontu osoaren %84,43 eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa aurrekontuaren %7,09 hartzen du.

Programak honela sailkatuta daude genero egokitasunari dagokionez:

El presupuesto de Hacienda y Finanzas representa el 84,43% del presupuesto total y el 7,09% del presupuesto de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La clasificación en cuanto a su pertinencia o no respecto a género es la siguiente:

EGOKIAK GENERO IKUSPEGITIK/ PROGRAMAS PERTINENTES	01.- Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Hacienda y Finanzas. 02.- Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa/ Tribunal Económico-Administrativo 10.- Zerga Administrazioa/ Administración Tributaria 11.- Iruzurraren aurkako plan berezia/ Plan Especial de Lucha contra el Fraude 20.- Aurrekontuak eta Finantzak/ Finanzas y Presupuestos 30.- Zerga eta Finantza Politika/ Política Fiscal y Financiera	Pertsona fisiko zein juridikoak dira azken hartzaileak, edota eragina dute, zuzenean edo zeharka, gizonengan eta emakumeengan, baliabideak eskuratzeari eta kontrolatzeari dagokionez/ Tiene como grupo destinatario final a personas físicas o jurídicas y /o afectan directa o indirectamente a mujeres y hombres, respecto al acceso y/o control de los recursos
--	--	--

EZ-EGOKIAK GENERO IKUSPEGITIK/ PROGRAMAS NO PERTINENTES	21.- Zor Publikoa/ Deuda Pública 31.-Erakundeekiko Konpromisoak/ Compromisos Institucionales.	Programa hauek herri administrazioen barruko antolaketari dagozkie, eta beharrezkoak dira haien aurrekontuak gauzatzeko, baina ez dute zuzeneko eraginik genero arloan. Dena den, aztergai hartzen dira hizkuntzaren erabilera eta langileen egitura/ Son programas que pertenecen a la organización interna de las administraciones públicas, para hacer efectivos sus respectivos presupuestos, pero sin incidencia directa en cuestión de género. En cualquier caso se analiza la utilización del lenguaje, así como su estructura de personal.
--	---	--

Genero ikuspegitik egokitzat kalifikatutako programak Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontu osoaren %1,30 dira, baina kudeaketako aurrekontu propioaren %92,19 hartzen dute.

Los programas pertinentes representan el 1,30% del presupuesto total de Hacienda y Finanzas, pero son el 92,19% del presupuesto propio de gestión.

Era berean, Aldundiaren aurrekontu osoaren %1,10 dira, eta departamentuen kudeaketa aurrekontu propio osoaren %6,54.

Sobre el presupuesto total de Diputación representan el 1,10% y sobre el presupuesto propio de gestión total de los departamentos representan el 6,54%.

Emakume eta gizonen arteko berdintasun helburuari begira zelako garrantzia duten aztertu ondoren, honela sailkatu dira genero ikuspegitik egokitzat hartutako programak:

La clasificación de los programas declarados pertinentes atendiendo a su relevancia para el objetivo de igualdad de mujeres y hombres ha dado el siguiente resultado:

GENERO IKUSPEGITIK PROGRAMA EGOKIAK/ PROGRAMAS PERTINENTES	AURREKONTUA/ PRESUPUESTO	PISUA PESO
GARRANTZI HANDIA / RELEVANCIA ALTA	5.485.733,00	12,35%
20.- Aurrekontuak eta Finantzak / Presupuestos y Finanzas	3.777.286,00	8,50%
30.- Zerga eta Finantza Politika / Política Fiscal y Financiera	1.708.447,00	3,85%
GARRANTZI ERTAINA / RELEVANCIA MEDIA	22.690.011,00	51,07%
10.- Zerga Administrazioa / Administración Tributaria	22.690.011,00	51,07%
GARRANTZI TXIKIA / RELEVANCIA BAJA	16.251.194,00	36,58%
01.- Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak / Servicios Generales de Hacienda y Finanzas	10.603.614,00	23,87%
02.- Auzitegi Ekonomiko-Administratibo / Tribunal Económico Administrativo	1.187.835,00	2,67%
11.- Iruzurraren aurkako Plan Berezia / Plan Especial de Lucha contra el fraude	4.459.745,00	10,04%
Genero ikuspegitik programa egokiak, guztira / Total programas pertinentes	44.426.938,00	100,00%

20 programa (Aurrekontuak eta Finantzak) eta 30 programa (Zerga eta Finantza Politika) “Garrantzi handikoak” direla jo da, honako alderdiak aintzat hartuta:

1.- 20 programaren berariazko helburuetako bat da aurrekontuan genero ikuspegia sartzeko prozesua bultzatzea.

2.- 30 programari araudia garatzea, zerga eta finantza arloko aholkularitza ematea, eta informazio sistema integratu bat garatzea dagozkio.

100 programa (Zerga Administrazioa) “Garrantzi ertainekoen” barruan sailkatu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga politikan duen eraginagatik, baina bere interes gune nagusia gehiago da zergen kudeaketa araugintza baino.

01 programa (Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak), 02 programa (Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa) eta 11 programa (Iruzurraren aurkako Plan Berezia) “Garrantzi txikiko” programatzat hartu dira, duten izaera barrukoa (01) edo instrumentala (02 eta 11) denez gero.

20 PROGRAMA: AURREKONTUAK ETA FINANTZAK

1.- Hautatutako programaren azterketa:

a.- Edukia: “Aurrekontuak eta Finantzak” programaren xedea da gardentasun eta efizientzia printzipioetan oinarritutako aurrekontu programazio bat prestatzea, baliabide publikoak printzipio horien arabera esleitu eta erabiltzeko, eta haien garapena kudeaketa finantzario onaren printzipioetara egokitzen dela bermatzeko.

2011rako aurreikusita dauden helburu eta ekintzak biltzen ditu, denak ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu, finantza, kontabilitate eta barne kontrolaren kudeaketarekin lotuta.

Se han considerado de “Relevancia alta” los programas 20 “Presupuestos y Finanzas” y 30 “Política Fiscal y Financiera”, en base a las siguientes consideraciones:

1.- El programa 20, contempla, como objetivo específico, el impulso de la implantación de la perspectiva de género en el presupuesto.

2.- Al programa 30 le corresponde el desarrollo normativo y el asesoramiento en política fiscal y financiera, así como el desarrollo de un sistema de información integrado.

El programa 100 “Administración tributaria” se ha calificado como programa de “Relevancia Media” por su incidencia en la política tributaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa, si bien se centra más en el aspecto de gestión de los tributos que en la capacidad normativa.

Los programas 01 “Servicios Generales de Hacienda y Fianzas”, 02 “Tribunal Económico-Administrativo” y 11 “Plan Especial de Lucha contra el Fraude” han sido calificados como programas de “Relevancia baja” por su carácter interno (01) o instrumental (02 y 11).

PROGRAMA 20: PRESUPUESTOS Y FINANZAS

1.- Análisis del programa

a.- Contenido: El programa 20 “Presupuesto y Finanzas” tiene como finalidad realizar una programación presupuestaria basada en los principios de transparencia y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, garantizando que el desarrollo de los mismos se adecua a los principios de buena gestión financiera.

Comprende los objetivos, y correspondientes acciones, previstos para el ejercicio 2011 relacionados con la gestión presupuestaria, financiera, contable y de control interno de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b.- Egindako hautapenaren justifikazioa: Aurrekontua denez gobernu taldeak bere programa kudeatzeko duen tresna nagusia (baliabideak esleitzen ditu haren helburuak garatzeko eta lehentasun politikoak ezartzen ditu), aurrekontua genero eraginaren ikuspegitik aztertzeak garrantzi berezia hartzen du.

Generoaren ikuspegitik egokitzat hartutako gainerako programetan bezala, honako irizpideak erabili dira:

- Indar eraldatzailea: Programaren izaera horizontala baloratu da, bere jarduketetako bat Aldundiko departamentu kudeatzaileek Aurrekontua elaboratzeko kontuan izan behar dituzten jarraibide tekniko eta ekonomikoak prestatzea baita. Horren ondorioz, programa honetatik bultzatu eta koordinatu daiteke genero ikuspegia aurrekontua osatzen duten gainerako programetan sartzea.
- Ahalmen eragilea: programa honen jarduketa esparrua barrukoa da, eta bere ekintzak Foru Aldundiko beste departamentuetara eta foru sektore publikoko entitateetara iristen dira. Hala ere, kontuan izanik daukan helburua dela esandako departamentu eta entitateek baliabideak esleitu eta erabiltzen dituztenean kudeaketa finantzario onaren printzipioak betetzen direla bermatzea, puntuazio handia eman zaio.
- Garrantzi funtzionala: uste dugu programa hau “abiadura palanka” bat dela genero ikuspegia aurrekontuan ezartzeko prozesuaren eragile eta koordinatzaile gisa.
- Langileen kudeaketa: programa kudeatzen duten langileek ezagutza eta sentsibilizazio berezia izan behar dute gainerako departamentuei ikustarazteko genero ikuspegia haien jarduketetan ezartzea garrantzitsua dela.

b.- Justificación de la selección: En la medida en que el presupuesto es la principal herramienta de la que dispone el equipo de gobierno para la gestión de su programa directivo, asignando los recursos al desarrollo de sus objetivos y fijando sus prioridades políticas, el análisis del impacto por razón de género, realizado sobre el mismo, adquiere especial relevancia.

Los criterios que se han utilizado, al igual que en el resto de los programas pertinentes, son:

- Poder transformador: Se ha valorado el carácter horizontal de este programa entre cuyas actuaciones se encuentra la de elaborar las directrices técnicas y económicas de elaboración del Presupuesto que deben seguir los departamentos gestores de la Diputación. En consecuencia desde este programa se puede impulsar y coordinar, la incorporación de la perspectiva de género en el resto de programas que conforman el presupuesto.
- Capacidad de Impacto: el ámbito de actuación de este programa es interno, sus actuaciones se extienden al resto de los departamentos de la Diputación Foral y a las entidades del sector público foral. Sin embargo y en la medida en que su objetivo es el de garantizar que en la asignación y utilización de los recursos por parte de estos, se están cumpliendo los principios de buena gestión financiera, se le ha dado una puntuación alta.
- Relevancia funcional: se considera que es un programa “palanca de cambio como impulsor y coordinador de la implantación de la perspectiva de género en el presupuesto.
- Gestión de personal: se considera que el personal que gestiona el programa tiene que tener un especial conocimiento y sensibilización para transmitir al resto de los departamentos la importancia de la implantación de la perspectiva de

género a sus actuaciones.

c.- Programaren kostu ekonomikoa:

Guztira 3,78 milioi euroko kredituak bideratu dira programa honetara, generoaren ikuspegitik egokitzat sailkatutako programen %8,50.

c.- Coste económico del programa:

El total de créditos destinados al programa asciende a 3,78 millones de euros, lo que representa el 8,50% de los programas clasificados como pertinentes al género.

Kapitulua / Capítulos	Kopurua / Importe
1- Langileen kostua/ Gastos de personal	3.775.286,00
2- Ondasun eta zerbitzuetako ohiko gastuak/ Gastos corrientes en bienes y servicios	2.000,00
Programa guztira / Total programa	3.777.286,00
Ogasun eta Finantzako aurrekontu guztiaren gaineko %/ % s/Presupuesto total de Hacienda y Finanzas	0,11%
Ogasun eta Finantzako kudeaketako aurrekontu gaineko %/ % s/Presupuesto gestión de Hacienda y Finanzas	7,84%
Programa egokien aurrekontuaren gaineko %/ % s/Presupuesto programas pertinentes	8,50%

Agerian jartzen da, beraz, programak barne izaera duela, eta programari atxikitako Foru Aldundiko langileek bakarrik garatzen dutela ia bere osoan.

Se observa por lo tanto que es un programa de carácter interno y cuya actividad se desarrolla prácticamente en su totalidad por el personal de la Diputación Foral adscrito al programa.

Langileria gastuak 3,78 milioi euro dira, eta ezaugarri hauek dituen langileriarri dagozkio:

El coste de personal asciende a 3,78 millones de euros y se corresponde a una plantilla con las siguientes características:

- Zuzendaritza honetan emakumezkoak dira nagusi (%70).
- Programa kudeatzen duten 49 emakumeetatik 38, C eta D sailkapen taldekoak dira (horietan ez da unibertsitateko titulurik exijitzen), eta 30 emakume A eta B taldekoak (unibertsitateko titulazioa exijitzen da horietan, goi edo erdi mailakoa). (Interesgarria izango litzateke Langileria Zerbitzuekin kontrastatzea zer formazio duten C eta D taldeko plazak betetzen dituzten langileek).
- Zuzendari postuetan eta buruzagitzako karguetan gizonezkoak dira nagusi. Honela banatuta daude: gizonezkoak (zerbitzuburu bat, sei atalburu, eta unitateburu bat; emakumezkoak (zuzendari bat, hiru zerbitzuburu, atalburu bat eta bulegoburu bat. Dena den, azpimarratzekoa da Zuzendaritza osatzen
- Es una Dirección feminizada (70%).
- Del total de las 49 mujeres que gestionan el programa, 38 ocupan los grupos de clasificación C y D, en los que no se exige titulación universitaria; y 30 los grupos de clasificación A y B, en los que se exige titulación universitaria superior o media. (Sería interesante contrastar con el Servicio de Personal, la formación de las personas que ocupan las plazas de los grupos C y D).
- Los puestos de Dirección y Jefaturas son ocupados en su mayoría por hombres (1 Directora, tres jefas de servicio, un jefe de servicio, seis jefes de sección, una jefa de sección, un jefe de unidad y una jefa de negociado) Si bien es cierto que al frente de las áreas en las que se estructura la Dirección, hay más mujeres que hombres.

duten arloetan emakumeak gehiago direla gizonak baino.

- Teknikarien postuetan (A eta B taldeak), behin buruzagitzak kenduta, gizonak adina emakume daude da (8 gizon eta 8 emakume).
- En el personal técnico (A y B), una vez eliminadas las jefaturas, hay el mismo número de hombres que de mujeres (8 hombres y 8 mujeres).

2.- Jarduerak eta programak gaitasunekin lotzea:

20 programak –Aurrekontuak eta Finantzak– ez du zuzeneko loturarik adierazi diren gaitasunekin, zeren eta bere helburua departamentuek genero ikuspegia txertatzeko lana bultzatu eta koordinatzea baita.

Nolanahi dela ere, aurrekontua herritarrei zuzendutako jarduketak publikoak garatzeko behar diren baliabide publikoak esleitzen dituen tresna den aldetik, eta, besteak beste, haren printzipio gidariak eraginkortasuna, eragimena, gardentasuna eta kalitatea direnez, printzipio horiei begira programa honek jasotzen dituen jarduketak “Partaidetza sozial eta politikoa komunitatean” deituriko 10. gaitasunarekin lotu litezke.

3.- Jardueren/programen emaitzen azterketa:

a.-Onuradunak izan daitezkeenak:

Berriro azpimarratu nahi dugu programa hau barruko tresna dela Gipuzkoako aurrekontuetan genero ikuspegia bultzatu eta koordinatzeko.

Hortik abiatuta, beraz, hauek izango lirateke onuradunak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, “Uliazpi Fundazioa” Foru Erakunde Autonomoa, eta merkataritzako foru sozietateak (Bidegi, Etorlur, Izfe, Lurraldebus). Lana departamentu kudeatzaileekin eta Uliazpi Fundazioarekin hasita dago.
- Programa kudeatzen duten langileak berak, gaian trebatzen eta sentsibilizatzen

2.- Análisis de la incidencia que tiene el programa sobre las capacidades esenciales:

El programa 200-Presupuestos y Finanzas-no tiene una ligazón directa con las capacidades relacionadas, ya que su objetivo es el de impulsar y coordinar la incorporación de la perspectiva de género por parte de los departamentos.

En todo caso, y en la medida en que el presupuesto es el instrumento por el que se asignan los recursos públicos al desarrollo de actuaciones públicas, dirigidas a la ciudadanía, y se rige, entre otros, por los principios de eficacia, eficiencia, transparencia y calidad, las actuaciones de este programa dirigidas al logro de estos principios podrían ligarse con la capacidad 10.- Participación social y política en la comunidad.

3.- Análisis de resultados de actividades/programas:

a.- Colectivo potencialmente beneficiario:

Insistimos en el carácter instrumental interno de este programa y en su objetivo de impulso y coordinación en la incorporación de la perspectiva de género en los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Partiendo por lo tanto de esta consideración,, el colectivo beneficiario serían:

- Los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Organismo Autónomo Fundación Uliazpi y las sociedades mercantiles forales (Bidegi, Etorlur, Izfe, Lurraldebus) El trabajo se ha iniciado con los departamentos gestores y con la Fundación Uliazpi.
- El personal propio que gestiona el programa, en cuanto a su aprendizaje y

diren heinean.

sensibilización en esta materia.

b.- Jardueren/programen datuei buruzko hausnarketa:

Berriro nabarmendu behar dugu 20 programa lanabes bat dela Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuetan genero ikuspegia bultzatu eta koordinatzeko, helburu hori berariaz jasota ageri baita 2011ko aurrekontuan.

Hauek dira helburu horri lotuta dauden ekintzak:

- Aurrekontu politika generoaren ikuspegitik aztertzeko prozesuan parte hartzea. Adierazlea: generoaren ikuspegitik aintzat hartutako programa kopurua
- Genero ikuspegia aurrekontuan sartzeko tresnak 2012ko aurrekontua prestatzeko jarraibide teknikoetara eramatea. Adierazlea: dokumentuak
- Genero eragina 2012ko aurrekontuetan ebaluatzeko txostena egitea. Adierazlea: dokumentuak

4.- Berdintasun arloko helburuen betetze maila:

Genero eragina ebaluatzeko hautatu diren programak ongi uztartzen dira 2008-2011 Berdintasun Planarekin, eta urrats bat gehiago ematen dute berez. Izan ere, lege obligazio bati erantzuteaz gainera, aurrekontua genero ikuspegitik ebaluatzen dute, eta hori garrantzi kualitatibo handiko ekintza bat da, Foru Aldundiaren sarrera eta gastu politikak ebaluatzea ahalbidetzen duelako. Bi politika horiek nabarmen eragin dezakete herritarren ongizatean eta aldaketak ekar ditzakete gizartean.

2008-2011 Berdintasun Plana Aldundiak prestatu duen lehenengoa da, eta bere ondorio positiboen artean besteak beste aipa daiteke bai departamentuen barruan eta bai departamentuen artean oinarrizko dinamikak sortu dituela berdintasun gaitan aurrera

b.- Reflexión en torno a los datos de las actividades/programas:

Hay que volver a subrayar el carácter instrumental del programa, como impulsor y coordinador de la incorporación de la perspectiva de género a los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, recogiendo dicho objetivo de forma específica en el presupuesto de 2011

Las acciones asociadas a dicho objetivo son:

- La participación en el proceso de análisis de la política presupuestaria desde una perspectiva de género. Indicador: número de programas incorporados a la perspectiva de género
- Trasladar a las directrices técnicas de elaboración del presupuesto 2012 las herramientas precisas para la introducción del enfoque de género en el presupuesto. Indicador: documentos
- Realización del informe de evaluación de impacto de género de los presupuestos 2012. Indicador: documentos

4.- Grado de cumplimiento de los objetivos en materia de igualdad:

Los programas relevantes seleccionados para la evaluación de impacto de género encajan con el Plan de Igualdad 2008-2011 e incluso dan un paso adelante, tanto por el hecho de responder a una obligación legal como por el hecho de que la evaluación del presupuesto desde la perspectiva de género constituye en sí misma una acción de relevancia cualitativa que permite evaluar las políticas de gasto y de ingresos de la institución, ambos instrumentos con alta capacidad de incidir en el bienestar de la ciudadanía y generar cambios en la sociedad.

El Plan de Igualdad 2008-2011 es el primero elaborado por la diputación y ha tenido la gran virtud de ir creando dinámicas intradepartamentales e interdepartamentales esenciales para avanzar en igualdad, de incorporar la reflexión sobre género en

egiteko, Aldundiaren ukitu gabeko eremuetan generoaren hausnarketa sartu duela, eta generoaren inguruko prestakuntza bultzatu duela.

Epe ertain eta luzera, planak jasotzen dituen zeharkako ekintzak etengabeak eta konstanteak izan behar dira (pertsonen trebakuntza indartzea, hizkuntzaren erabilera sustatzea, hirugarrenetik harremanetan generoaren aldagaia aintzat hartzea, edo datu estatistikoetan sexuaren aldagaia sartzea, besteak beste).

Garrantzi berezikoak izan beharko lirateke familia eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizun partekatua sustatzeko aurrera eramaten diren jarduketak. Ekintza berritzaileak exijitzen ditu horrek, Funtzio Publikoak bultzatu eta ezarri behar dituenak sindikatuekin ados jarrita.

Era berean, departamentuek garatzen dituzten ekintzak selektiboak, eraldatzaileak eta garrantzitsuak izan behar dira; alde horretatik, *aurrekontuaren ebaluazioak eman dezake informazio hori, pertsonengan duen eragina sakonki aztertu denez gero*. Horrela, departamentuetako ekintza guztien arteko sinbiosia, eta genero ikuspegitik egiten den ebaluazioa, erabatekoa izango lirateke, eta inplikaturik dauden pertsonen lana erraztuko litzateke.

Oro har, interesgarria izango litzateke hurrengo planak lidergo politiko indartsu bat izatea, epe ertain eta luzera egin egotea, eta garrantzi handiko ekintzak jasotzea, ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa barne.

5.- Txosten hau egiteko, zer pertsonak hartu duten parte eta zenbat denbora erabili den:

- Imelda Iraola Liberal: Aurrekontu Zerbitzuko administraria
- Koro Iriarte Mendiola: Aurrekontu Zerbitzuko burua.
- Erabilitako denbora: 11 ordu.

ámbitos inéditos en la diputación, de impulsar la formación en materia de género, entre otras.

A medio y largo plazo las acciones incorporadas al plan de carácter transversal que inciden en la capacitación de las personas, en el uso del lenguaje, en la consideración de la variable género en la relación con terceros o en la incorporación de la variable sexo en datos estadísticos, entre otros, deben ser continuas y constantes.

Especial relevancia debían adquirir aquellas relacionadas con la conciliación familiar y corresponsabilidad que requieren de acciones innovadoras pero deben ser impulsadas e implantadas por Función pública de acuerdo con los agentes sindicales.

De igual modo las acciones a desarrollar por lo departamentos deberán ser selectivas, con capacidad transformadora y relevantes; en este sentido *la evaluación presupuestaria puede ser el instrumento que aporte esa información dado que se ha realizado un análisis profundo sobre su impacto en las personas*; de esta manera la simbiosis entre todas las acciones departamentales y su evaluación desde la perspectiva de género sería completa y se facilitaría la labor de las personas involucradas en el mismo.

Con carácter general, el próximo plan sería de interés que contara con un fuerte liderazgo político, con una visión a medio y largo plazo, con acciones de relevancia alta y con una evaluación cuantitativa y cualitativa.

5.- Relación de personas y tiempos invertidos en la elaboración del informe:

- Imelda Iraola Liberal: Administrativa del Servicio de Presupuestos
- Koro Iriarte Mendiola: Jefa del Servicio de Presupuestos.
- Tiempo invertido: 11 horas.

30 PROGRAMA: ZERGA ETA FINANTZA POLITIKA

1.- Hautatutako programaren azterketa

a.- Programaren azalpena laburra

Gobernuen politika ekonomikoetako bat (zerga politika) sarreren aldetik definitzeko erabiltzen da programa hau. Horregatik, gainditu egiten du Departamentuaren jarduketara esparrua, zeren eta zerga itunduetatik datozen sarrera fiskalak Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalen finantzaketa iturri nagusia baitira.

Programaren bitartez definitzen dira gobernu taldeak gai horretan dituen lehentasunei erantzuteko bideratuko diren arau proiektu zein zerga aldaketak. Horretarako, lan hauek egiten dira:

- arauen “benchmarking-a”
- zerga azterketak eta analisi juridikoak
- zerga-bilketan izango den eragina kuantifikatzeko aurreikuspen eta memoriak

Zerga politikaren zeregin nagusietako bat da politika publikoak finantzatzeko baliabideak jartzea, eta errenta modu egokian banatuko dela bermatzea. Bestalde, beste helburu batzuk lortzeko ere erabiltzen da: gizarte eredua, ekonomia iraunkorra...

Hortaz, politika ekonomiko orokorreko helburuak lortzen laguntzeaz gainera, eragin zuzena eta nabarmena du pertsonengan: portaerak baldintzatzen ditu, beharrei erantzuten die lehentasunen arabera,...

b.- Egindako hautapenaren justifikazioa

Programa hautatu da oso balorazio ona lortu duelako jarraian aipatzen diren oinarritzko irizpideak aplikatuta (Andaluziako Juntaren G⁺ Proiektuan erabiliak):

PROGRAMA 30: POLÍTICA FISCAL Y FINANCIERA

1.- Análisis del programa

a.- Breve descripción del programa

El programa es el instrumento con el que se define desde el lado de los ingresos una de las políticas económicas en manos de los gobiernos: la política fiscal. Por ello, supera el ámbito de actuación del propio Departamento, ya que los ingresos fiscales provenientes de los tributos concertados son la principal fuente de financiación del Gobierno Vasco, la Diputación Foral y los ayuntamientos del Territorio Histórico.

A través del programa, se definen los proyectos normativos y las modificaciones tributarias que tratan de dar respuesta a las prioridades del equipo de gobierno en esta materia. Para ello, se realizan las siguientes tareas:

- benchmarking normativo
- estudios tributarios y análisis jurídicos
- previsiones y memorias de cuantificación de los impactos recaudatorios

Una de las principales funciones de la política tributaria es dotar de recursos necesarios para la financiación de las políticas públicas, además de garantizar la adecuada redistribución de la renta. Por otro lado, también se utiliza para facilitar la consecución de otros objetivos: modelo social, economía sostenible, ...

Por tanto, además de ser un instrumento que ayuda a conseguir objetivos de política económica general, también tiene un impacto sensible y directo sobre las personas: determina comportamientos, atiende necesidades según orden de prioridades, ...

b.- Justificación de la selección

El programa ha sido seleccionado en base a la alta graduación obtenida en la aplicación de los siguientes criterios básicos (utilizados en el Proyecto G⁺ de la Junta de Andalucía):

Indar eraldatzailea: araugintzaren esparruan autonomoak izatea eta arau fiskalek gizartean aldaketak eragin ahal izatea garrantzi handikotzat hartzen da generoaren ikuspegitik. Gure kasuan, Ekonomia Itunak zerga sistema propio bat eratzeko eskaintzen dituen aukerak handiak dira oso, eta, berez, hori da GFaren eskumen garrantzitsuenetariko bat.

Ahalmen eragilea: dudarik gabe, zerga eta finantza politikak biztanle gehienei eragiten die, errentetan, kontsumoan, ondarearen transakzioetan, etab... eragiten duenez gero.

Garrantzi funtzionala: programak modu nabarmenean eragin dezake pertsonen funtsezko ahalmenetan (Amartya Sen-ek definitu zituen horiek), esate baterako, beharrezkoak diren zenbait produktu kontsumitzea erraztuz, hainbat jarduera egitea salbuespen edo kenkarien bitartez hobaritzuz, etab...

Langileen kudeaketa: uste dugu programaren exekuzioaz arduratzen diren langileak ongi prestatuta eta sentsibilizatuta daudela genero ikuspegiari dagozkion gaitetan, haren exekuzioan ikuspegi hori behar bezala sartzeko.

c.- Programaren eragin ekonomikoa

Programaren garrantzi ekonomikoa erakusteko, honako datuok ditugu:

- 2011. urterako aurrekontuaren arabera, sarrerak 3.940,0 milioi euro dira, 5.583 euro biztanleko.
- 2011. urterako gastu fiskalen aurrekontua 2.050,0 milioi euro da (2.905 euro biztanleko), hau da, sarreren aurrekontua gehi gastu fiskalak batuta ateratzen denaren %34,2.
- Zerga itunduen sarrerengatik Foru Aldundiari 628,8 milioi euroko baliabideak dagozkio, 2011ko aurrekontuko sarrera ez-finantzario osoen (764,6 M) %85.

Poder transformador: La autonomía en cuanto al desarrollo normativo y la capacidad que estas normas fiscales tienen de generar cambios en la sociedad se considera importante desde el punto de vista del género. En nuestro caso, las posibilidades que ofrece el Concierto Económico para conformar un sistema tributario propio son muy importantes, siendo de hecho una de las competencias más importantes de la DFG.

Capacidad de impacto: Sin duda, la política fiscal y financiera afecta a la inmensa mayoría de la población, en cuanto afecta a la obtención de rentas, al consumo, a las transacciones patrimoniales, etc.

Relevancia funcional: La potencialidad del programa a la hora de influir en las distintas capacidades esenciales (definidas por Amartya Sen) de las personas es muy importante, p.ej., facilitando el consumo de ciertos productos necesarios, premiando o facilitando el ejercicio de determinadas actividades mediante exenciones o deducciones, etc.

Gestión de personal: Consideramos que el personal responsable de la ejecución del programa debe estar rigurosamente formado y sensibilizado en los temas relacionados con la perspectiva de género, de cara a introducirlo apropiadamente en la ejecución del mismo.

c.- Impacto económico del programa

Para mostrar la importancia económica del programa se ofrece los siguientes datos:

- Los ingresos presupuestados para el 2011 ascienden a 3.940,0 millones de euros, 5.583 euros por habitante.
- El presupuesto de gastos fiscales para 2011 asciende a 2.050,0 millones de euros (2.905 euros por habitante), el 34,2% del presupuesto de ingresos más los gastos fiscales.
- Los recursos disponibles para la DF de los ingresos por tributos concertados (628,8 M) representan el 85% del total de los ingresos no financieros del presupuesto de 2011 (764,6 M).

2.- Programak oinarritzko gaitasunen gainean duen eraginaren analisia

Zerga politikaren bitartez, printzipioz, pertsonen gaitasun gehienek gainean eragin daiteke: osasuna, hezkuntza, lan merkatua, diru sarrerak, mugikortasuna... Horrela, zerga politika (Errenta Zerga batik bat) tresna izan da helburu zabalagoak lortzeko, hala nola ekitatea banaketan, aukera berdintasuna, gizarte estaldura, gizarte politikak, eta eraginkortasun ekonomikoa, ahal dela neutraltasun fiskala bermatuz beti. Helburu horiek asko direnez eta askotan balore subjektiboekin erlazionatuta daudenez, gaurko zerga sistema oso konplexua da eta iritzi asko pizten ditu.

Zenbait kasutan, eragin hori zuzeneko izango da: aldagaietan eta pertsonen portaeretan eragiten du argi eta garbi. Beste zenbait kasutan, zerga politikako neurrien bitartez zeharka eragiten da pertsonengan, eta helburua izaten da haien portaerak bideratzea jokabideei emandako pizgarriak direla medio.

Horrela, gure zerga araudian badira zenbait neurri diru sarrerak lortzea errazteko ezarri direnak (zerga murrizpen handiagoak errenta mailarik txikienetan) edo pertsonen zainza eskuratzea eta hobetzea helburu dutenak (mendetasunaren kenkariak PFEZn).

Jarraian, eta adibide modura, gaur egungo zein iraganeko hainbat jardura azalduko ditugu, oinarritzko gaitasunekin duten erlazioa ikusteko. Aipatzekoa da “*Diru sarrerak lortu ahal izatea*” gaitasunaren kasuan, zerga eta finantza politikak beti duela eragina; izan ere, hiritarren tributazio maila ezartzeko unean erabilgarri dagoen errenta mailaren gainean eragiten da.

2.- Análisis de la incidencia que tiene el programa sobre las capacidades esenciales

En principio, a través de la política fiscal se puede actuar sobre la mayoría de las capacidades de las personas: salud, educación, mercado laboral, ingresos monetarios, movilidad... Así, la política tributaria (sobre todo el IRPF) se ha utilizado como instrumento para ayudar a lograr objetivos más amplios, como la equidad distributiva, la igualdad de oportunidades, la cobertura social y las políticas sociales, así como la eficiencia económica, garantizando en la medida de las posibilidades la neutralidad fiscal. Como esos objetivos son muy diversos y están relacionados, muchas veces, con valores subjetivos, el sistema fiscal se ha convertido muy complejo y controvertido.

Este poder de actuación será, a veces, directo: afecta claramente a variables y comportamientos de las propias personas. Otras veces, a través de las medidas de política fiscal, se incide indirectamente y se trata de reconducir comportamientos de las personas, incentivando conductas.

De esta manera, existen en nuestra normativa fiscal medidas tributarias destinadas a facilitar el acceso a la obtención de ingresos monetarios (mayores reducciones fiscales para niveles de rentas más bajos), a facilitar y mejorar el acceso al cuidado de las personas (deducciones en el IRPF por dependencia), ...

A continuación, se detallan determinados ejemplos de actividades existentes en la actualidad o en el pasado y su relación con las capacidades esenciales a las que afectan. Cabe destacar que en el caso concreto del *Acceso a la obtención de ingresos monetarios* la política fiscal y financiera incide en todo caso, ya que a la hora de establecer el nivel de tributación de los ciudadanos se está actuando sobre su nivel de renta disponible.

GAITASUNAK / CAPACIDADES	JARDUERAK / ACTIVIDADES
Osasunera heltzea / Acceso a la salud	BEZaren tasa murriztuak jarduera eta produktu sanitarioetarako. Gastu medikoak PFEZn kentzeko aukera (desagertu da...)/ Tipo reducidos en IVA para actividades y productos sanitarios Posibilidad de deducciones en IRPF por gastos médicos (ya no existe...).
Hezkuntza eta jakintzara heltzea / Acceso a la educación y al conocimiento	BEZaren tasa murriztuak hezkuntza arloko jarduera eta produktuetarako / Tipo reducidos en IVA para actividades y productos educativos.
Bizitzeko etxe egoki eta seguru bat izatea/ Acceso a un espacio doméstico adecuado y seguro	Kenkaria Errenta Zergan, ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeagatik, edo hura errentan hartzeagatik. Tasa murriztua ondare eskualdaketen gaineko zergan, etxebizitza erosten denean. OHZ: tasa murriztuak, salbuespenak,.../ Deducción en IRPF por adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual, así como por alquiler de la misma. Tipo reducido en el ITP y AJD para adquisición de vivienda. IBI: existencia de tipos reducidos, exenciones,...
Baldintza egokietan ordaintzen den lan bat egitea / Acceso a un trabajo remunerado en condiciones adecuadas	Kenkaria sozietateen gaineko zergan, enplegua sortzeagatik. PFEZn baterako tributazio erregimena mantentzea edo kentzea / Deducción Impuesto de Sociedades por creación de empleo Mantenimiento o supresión del régimen de tributación conjunta en el IRPF
Diru sarrerak lortu ahal izatea / Acceso a obtención de ingresos monetarios	Kenkaria sozietateen gaineko zergan, enplegua sortzeagatik / Deducción Impuesto de Sociedades por creación de empleo.
Zaintzak jasotzea / Acceso al cuidado	PFEZn kenkaria aplikatzea mendeko pertsonak izateagatik, mendeko pertsonak zaintzeko laguntzak salbuetsita uztea, .../ Deducción en IRPF por dependencia, exención de las cantidades recibidas como ayudas para el cuidado de personas dependientes,...

Hala ere, oro har, eztabaida piztu duen gai bat da zenbait jarduketa arlotan ez ote den eraginkorrago sarreraren politika fiskaletik jardutea baino gehiago horiei gastu programetatik heltzea. Adibidez, zenbait teoriak diote PFEZren oinarri ezgarriak

Sin embargo, con carácter general, existe una discusión previa sobre si algunas áreas de actuación son más o menos eficientes desde la vía de la política fiscal de ingresos, y resulta más recomendable actuar desde los programas de gasto. Por ejemplo, determinadas teorías

zabal definitu beharko lukeela zer den errenta, eta onuradun fiskalen kopurua mugatu beharko lukeela bai oinarrian bertan eta bai kuotako kenkarietan. Horrela, politika orokor gehienak gastu programen bitartez eraman beharko lirarteke aurrera.

señalan que la base imponible del IRPF debería incluir una definición amplia de renta, con un número de beneficios fiscales limitado, tanto en la propia base, como en las deducciones en cuota. De esta manera, la mayoría de las políticas generales deberían implementarse a través de programas de gasto.

3.- Jarduketa/programen emaitzen azterketa

3.- Análisis de resultados de actividades/programas

a.- Onuradunak izan daitezkeenak: adierazleak

a.- Colectivo potencialmente beneficiario: Indicadores

Onuradunak zein izan daitezkeen ezagutzea. Hutsuneak ezagutzan:

Conocimiento del colectivo beneficiario. Lagunas en el conocimiento:

PFEZren zergadunei dagokienez, gaur egun posible da ia denen sexua jakitea (datua aitortutako eskatzen da, nahiz eta zenbait kasutan datu hori ez den agertzen paperean aurkeztutako aitortutako). Sexuaz gain, badira beste datu batzuk ere, hala nola adina, bizilekua, aitortutako errenta, seme-alaba kopurua, ... onuradunak zehatzago ezagutzeko aukera ematen dutenak.

En cuanto a las personas contribuyentes del IRPF, se está cerca de conocer el sexo de prácticamente la totalidad de las mismas (ya que se pide el dato en las declaraciones, aunque a veces falta en las declaraciones presentadas en papel). Junto a la variable sexo, se dispone también de la edad, lugar de residencia, renta declarada, número de hijos, ... que facilitan el conocimiento más detallado del colectivo beneficiario.

Orobat, planteatu da sexu aldagaia beste eredu batzuetan sartzea, lan atxikipenen 190 ereduan kasu, horrek ahalbidetu dezakeelako errenta horiek jasotzen dituzten guztien datuak izatea, errentan aitortu edo ez.

También se ha planteado la introducción de la variable sexo p.ej. en el modelo 190 de retenciones del trabajo, de cara a contar con los datos de todos los perceptores de estas rentas, independientemente de si declaran en renta o no.

Gainera, gipuzkoar guztien sexua ezagutze aldera, EUSTATen bitartez erroldako datuak eskuratzeko posibilitatea aztertzen ari da.

Además, se está trabajando con la posibilidad de acceder a los datos del censo a través de EUSTAT, de cara a contar con el dato sexo de toda la ciudadanía guipuzcoana.

Zeharkako zergen kasuan, BEZean adibidez, ezinezkoa da zergadunen sexua jakitea. Izan ere, zergapetua amaierako kontsumitzailea izan arren, zerga enpresa ekoizle edo banatzaileak aitortzen du. Zerga horien bilakaera ikusteko eta zerga politikek haietan dituzten ondorioak ezagutzeko, kontsumoaren kanpo azterketak egin beharko lirarteke.

En el caso de los impuestos indirectos, como es el caso del IVA, nos es imposible determinar el sexo de los contribuyentes, ya que si bien es el consumidor final el que es gravado con el impuesto, es la empresa productora o distribuidora la que declara el impuesto. Para conocer su evolución y posibles efectos de las políticas fiscales en estos impuestos, debería recurrirse a estudios externos sobre consumo, p.ej.

b. Jardueren datuei buruzko hausnarketa

b.- Reflexión entorno a los datos de las actividades

i. Aukeratutako adierazleak

Adierazleak aukeratzeko garaian, iruditzen zaigu selektiboak izatea komeni dela. Uste dugu adierazle gehiegi erabiltzea ez dela oso lagungarria eztabaida zentratzeko, eta gerta daiteke arreta oso esanguratsuak ez diren alderdien gainean jartzea. Eskarmentuak erakutsiko digu non kokatu arreta; nolana ere, proposamen gisa honako adierazleak hautatu dira:

i.1. Emakumeen eta gizonen batez besteko errenta eta tasa nominala

	Batez besteko errenta (euroak)	
	Renta media (euros)	
	2008	2009
Emakumeak/ Mujeres	14.747	15.468
Gizonak/ Hombres	25.103	25.865

	Batez besteko tasak 2009an	
	Tipos medios 2009	
	Nominala/ Nominal	Efektiboa/ Efectivo
Emakumeak/ Mujeres	%24,6	%13,5
Gizonak/ Hombres	%26,0	%16,2

i. Indicadores seleccionados

A la hora de seleccionar los indicadores nos parece de gran interés ser especialmente selectivos. Creemos que un excesivo número de indicadores no ayuda a centrar el debate y dispersa la atención sobre aspectos que quizás no son especialmente significativos. La experiencia nos mostrará donde focalizar la atención, en cualquier caso, y a modo de propuesta se han seleccionado los siguientes:

i.1. Renta media y tipo nominal medio de mujeres y hombres.

Ondorioak:

- Errenta mailan diferentzia argi bat dago emakumeen eta gizonen artean. Adibidez: 2009an gizonen batez besteko errenta 10.397 euro handiagoa da emakumeena baino (+%67,2).
- PFEZ zerga progresiboa da: oinarri ezargarria hazten den neurrian karga tasa nominala hazi egiten da. Hau da, ordaindu beharreko kuota errenta maila baino neurri handiagoan hazten da.
- Emakumeen errenta maila gizonezkoena baino txikiagoa denez, zergaren progresibitatea gehitzeko hartzen diren neurri fiskalek gizonengan izango dute eragin handiagoa, eta, beraz, amaierako errenta erabilgarrian dauden desberdintasunak arintzeko balio dute.
- Horrez gain, kontuan izanik emakumeak gehiago agertzen direla beheko errenta

Conclusiones:

- Existe una clara diferencia a nivel de rentas entre mujeres y hombres. Por ejemplo, en 2009 la renta media de los hombres supera a la de las mujeres en 10.397 euros (+67,2%).
- El IRPF es un impuesto progresivo: el tipo de gravamen nominal es una función creciente de la base imponible. Es decir, la cuota a pagar crece en mayor medida que el nivel de renta.
- Debido a que las mujeres tienen un nivel de renta inferior al de los hombres, las medidas fiscales dirigidas a aumentar la progresividad del impuesto tendrán un mayor efecto en los hombres; y, por tanto, mitigan las desigualdades en la renta final disponible.
- Además, teniendo en cuenta que las mujeres se concentran más en los tramos

tarteetan, tarte zehatz horietan indarra jartzeak onura gehiago ekarriko die emakumeei.

bajos de renta, actuar en esos tramos concretos beneficiará en mayor medida a las mujeres.

- Aurrezpenaren oinarriak duen banaketak erakusten du emakumeen partaidetza handiagoa dela (%45,9); horren ondorioz, haien tasa nominala igotzeak (jaisteak) batik bat emakumeei dakarkie kaltea (onura).
- La distribución de la base del ahorro muestra una mayor participación de las mujeres (45,9%), por lo que subidas (bajadas) de su tipo nominal perjudican (benefician) más a las mujeres.

i.2. Errenta Zergan kenkariak aplikatzea

i.2. Aplicación de deducciones en IRPF

2009an aplikatutako kenkarien portzentajea / Porcentaje de aplicación del importe de deducciones en 2009		
	Emakumeak/ Mujeres	Gizonak/ Hombres
Ohiko bizilekua eskuratzea/ Acceso a vivienda habitual		
Erosketa, birgaiketa/ Adquisición, rehabilitación	38,4	61,6
Alokairua / Alquiler	42,3	57,7
Mendetasunaren kenkaria / Deducción por dependencia	41,9	58,1
Ondorengo ahaideen kenkaria/ Deducción por descendientes	37,5	62,5
Sindikatuaren aldeko ekarpenak/ Aportaciones a sindicatos	35,0	65,0

Oinarri likidagarriaren portzentajea 2009an / Porcentaje de la base liquidable en 2009		
	Emakumeak/ Mujeres	Gizonak/ Hombres
Oinarri likidagarri orokorra/ Base liquidable general	35,5	64,5
Aurrezpenaren oinarri likidagarria/ Base liquidable del ahorro	45,9	54,1
Oinarri likidagarria, guztira/ Base liquidable total	36,8	63,2

Kuotako kenkarien datuak aztertzean, erreferentzia gisa hartzen dugu zer pisu duen sexu bakoitzak oinarri likidagarri osoan (%36,8 emakumeak eta %63,2 gizonak). Datu horretatik abiatuta, aztergai hartzen ditugu zenbateko handieneko kenkariak, oinarriaren banaketa horretatik gehien aldentzen direnak.

A la hora de analizar los datos de las deducciones en cuota, tomamos como referencia el peso que tiene cada sexo en la base liquidable total (36,8% mujeres y 63,2% hombres). A partir, de ese dato analizamos las deducciones más importantes cuantitativamente y que más se separan de esa distribución de la base.

Ondorioak:

Conclusiones:

- Oro har, zergaren konfigurazioetatik beragatik (progresibitatea) eta emakumeek oinarri likidagarria txikiagoa
- En términos generales, debido a la propia configuración del impuesto (progresividad) y a que las mujeres
gehitzen dizkion Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, honela defini daiteke “sexu-jazarpena”, Zigor Kodean ezarritakoari kalterik egin gabe: pertsona baten duintasunaren aurka egiten den edo asmo horrekin egiten den sexu-izaerako edozein portaera, ahozkoa edo fisikoa, bereziki larderiakoa, apalesgarria edo laidogarria den ingurunea sortzen denean. Eta “sexuaren ziozko jazarpena” da pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, pertsonaren duintasunaren aurka egiten bada edo asmo horrekin egiten bada, eta larderiakoa, apalesgarria edo laidogarria den ingurunea sortzen denean.

Adibide gisa, jokabide hauek izan daitezke sexu-jazarpena:

- a) adierazpen iradokitzaile eta ezatseginak, itxurari buruzko txisteak edo iradokizunak eta eduki lizuna duten nahitako ahozko abusuak;
- b) gonbite lizunak edo konprometigarriak;
- c) irudi pornografikoak erabiltzea lantoki eta lan-tresnetan.
- d) lizunkeriazko keinuak;
- e) beharrezkoa ez den ukipen fisikoa, igurtziak;
- f) toki pribatuetan –komuna, aldagelak– pertsonen ezkutuka begiratzea;
- g) sexu-ekintzak galdatzea, lehentasunezko tratua eskainita era esplizitu edo inplizituan, edo mehatxuak eginda, eskakizun horri uko eginez gero (sexu-xantaia, *quid pro quo* edo trukea);
- h) eraso fisikoak.

2. “Jazarpen moral” kontzeptua.

Europar Batasunak emandako definizioaren arabera, hau da jazarpen moral: lan-ingurunean diskriminaziozkoak, laidogarriak, umiliagarriak, larderiazkoak edo indarkeriazkoak diren eta, pertsonari berari edo pertsonaren lanari eragindako entzute-galtzea dela-eta, pertsonaren duintasunaren aurkako suertatzen diren jokabide guztiak edo inoren biritza pribatuan nahastea, eragindako pertsonari kalte psikiko eta/edo fisikoa sortuz.

Hauek izan daitezke, besteak beste, jazarpenezko jokabideak:

- a) pertsonari eta bere lanari buruz jendaurrean eta behin eta berriro aipu txarrak egitea;
- b) etengabeko iruzkin iraingarriak itxura fisikoari edo ideologiari buruz, edo

hombres, que incorpora al ordenamiento jurídico las Directivas 2002/73/CE y 2004/113/CE del Parlamento Europeo, constituye «acoso sexual», sin perjuicio de lo establecido en el Código Penal, cualquier comportamiento, verbal o físico, de naturaleza sexual que tenga el propósito o produzca el efecto de atentar contra la dignidad de una persona, en particular cuando se crea un entorno intimidatorio, degradante u ofensivo. Y constituye «acoso por razón de sexo» cualquier comportamiento realizado en función del sexo de una persona, con el propósito o el efecto de atentar contra su dignidad y de crear un entorno intimidatorio, degradante u ofensivo.

A modo de ejemplo, pueden constituir acoso sexual los siguientes comportamientos:

- a) observaciones sugerentes y desagradables, chistes o comentarios sobre la apariencia o aspecto, y abusos verbales deliberados de contenido libidinoso;
- b) invitaciones impúdicas o comprometedoras;
- c) uso de imágenes o pósters pornográficos en los lugares y herramientas de trabajo;
- d) gestos obscenos;
- f) observación clandestina de personas en lugares reservados, como los servicios o vestuarios;
- g) demandas de favores sexuales acompañados o no de promesas explícitas o implícitas de trato preferencial o de amenazas en caso de no acceder a dicho requerimiento (chantaje sexual, *quid pro quo* de intercambio);
- h) agresiones físicas.

2. Concepto de «Acoso moral».

De acuerdo con la definición de la Unión Europea se entiende por «acoso moral» todo comportamiento de carácter discriminatorio, ofensivo, humillante, intimidatorio o violento, o bien una intrusión en la vida privada que atentan contra la dignidad de cualquier persona en el entorno laboral, ya sea por el desprestigio causado a la propia persona como por el descrédito al trabajo por ella desempeñado, de forma tal que se produzca un daño psíquico y/o físico a la persona afectada.

Entre otros comportamientos, pueden constituir conductas acosadoras:

- a) las descalificaciones públicas y reiteradas sobre la persona y su trabajo;
- b) los comentarios continuos y vejatorios sobre el aspecto físico, la ideología o

- c) kontraesankorrak diren eta, beraz, aldi berean betetzen ezinezkoak diren aginduak ematea;
- d) agindu iraingarriak ematea;
- e) gehiegizko eta etengabeko zelatatzea ekartzen duten ekintzak;
- f) pertsona bat bakartzeko eta isolatzeko agindua;
- g) eraso fisikoa.**

III. Prebentzio-neurriak.

Hauak dira hartu diren prebentzio-neurriak:

- Laneko jazarpenetik babesteko batzorde bat sortu da.
- Aurrerago deskribatu dugun jarduteko protokoloa erabiliko da, gerta daitezkeen egoerak hautemateko eta jazarpen-jokabideak, edozein modutakoak –sexu-jazarpenak nahiz jazarpen morala–, saihesten laguntzeko.
- Aldian behin, neurri hauek eta protokoloa jendaurrean zabalduko dira.
- Informazio-kanpainak eta prestakuntzako ekintzak burutuko dira.
- Langileen ordezkariak, halaber, sexu-jazarpena eta sexuaren ziozko jazarpena prebenitzen lagunduko dute, langileak jazarpenaren aurrean sentikorturik eta Uliazpiko Zuzendaritzari helarazi zaizkion eta jazarpena bultza dezaketen jokabide edo portaeren berri emanda.
- Laneko jazarpena arrisku psikosoziala izanik, erakunde honek arrisku psikosozialen ebaluazioa egin duela jasota utzi nahi du.

1. Sexu-jazarpenetik edo sexuaren ziozko jazarpenetik babesteko Batzordea

1.1. Xedea.

Jazarpen moral, sexu-jazarpen edo sexuaren ziozko jazarpenetik babesteko Batzordea sortu da, Uliazpin, langileen artean edo edozein arrazoi dela eta Uliazpiko langileekin zerikusia duten hirugarren pertsonekin lotuta (kontratuak, hornitzaileak, praktiketan ari diren pertsonak...) burutzen den jazarpen mota horren inguruko salaketak aztertzeko.

1.2. Kideak.

Kide hauek osatuko dute Batzordea:

c) impartir órdenes contradictorias y por tanto imposibles de cumplir simultáneamente;

e) las actitudes que comporten vigilancia extrema y continua;

f) la orden de aislar e incomunicar a una persona;

g) la agresión física.

III. Medidas de prevención.

Como medidas de prevención se adoptan las siguientes:

- Se crea una Comisión de protección frente al acoso laboral.
- Se adopta el protocolo de actuación a seguir que se describe más adelante, necesario para detectar las posibles situaciones que pudieran producirse y que contribuya a evitar las conductas de acoso en cualquiera de sus modalidades: Acoso sexual y acoso moral
- Periódicamente, se difundirá el contenido de las presentes medidas junto con el protocolo.
- Se realizarán campañas informativas y acciones de formación.
- Por su parte, las y los representantes de las personas trabajadoras deberán contribuir a prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo mediante la sensibilización de las personas trabajadoras frente al mismo y la información a la dirección de Uliazpi de las conductas o comportamientos de que tuvieran conocimiento y que pudieran propiciarlos.
- Como riesgo de carácter psicosocial que es el acoso laboral, se deja constancia que esta institución tiene realizada la evaluación de riesgos psicosociales.

1. Comisión de protección frente al acoso sexual o por razón de sexo

1.1 Objeto.

Se crea la Comisión de protección frente al acoso moral, sexual o por razón de sexo que tratará las denuncias que por tales tipos de acosos puedan producirse en Uliazpi, tanto entre personas pertenecientes a la plantilla como las que recaigan sobre terceras personas que por la razón que sea tengan relación con el personal de Uliazpi (contratas, proveedores, personas en prácticas,...).

1.2 Composición.

La Comisión estará formada por:

- Giza Baliabideetako arduraduna.
- Hiru langile, erakundeko Gerentziak eta Batzordeak izendatuta.
- Enpresako Batzordeko kide bat.
- El Responsable de Recursos Humanos.
- Tres trabajadores/as, que serán designados/as por la Gerencia del organismo y por el Comité.
- Una persona miembro del Comité de empresa.

Argi dago sexuaren araberako proportzionaltasuna kontuan hartuko dela Batzordeko kideen artean.

Como es obvio se respetará la proporcionalidad debida de sexo en su composición.

1.3. Eraketa.

Gerentzia arduratuko da Batzordea eratzeaz. Batzordea 5 egun baliadunen epean formalizatu beharko da, salaketa jasotzen denetik hasita.

1.3 Constitución.

Corresponderá a la Gerencia constituir la Comisión, constitución que habrá de formalizarse en un plazo de 5 días hábiles desde la recepción de la denuncia.

1.4. Abstentzia eta ezespena.

Batzordeko kideek ez dute prozeduran esku hartuko alderdi interesduna badira, eta edozein alderdik ezetsi ahal izango ditu. Bi egoera horietan, arrazoitutako idazki bat aurkeztu beharko da, jardueren hasieran.

1.4 Abstención y recusación.

Las personas miembros de esta Comisión se abstendrán de intervenir en el procedimiento si son parte interesada, y podrán ser recusadas por cualquiera de las partes. En ambos casos deberá presentarse escrito motivado al comienzo de las actuaciones.

1.5. Konfidentzialtasuna.

Batzordea osatzen duten pertsonen konfidentzialtasun-adierazpen bat sinatuko dute, sexu-jazarpena edo sexuaren ziozko jazarpena pairatu duen ustezko biktimak egindako salaketa ezagutzera ez emateko.

1.5 Confidencialidad.

Las personas componentes de la Comisión firmarán una declaración de confidencialidad con el fin de no divulgar la denuncia realizada por la presunta víctima de acoso sexual o por razón de sexo.

Era berean, jardunbidearen edozein fasetan, prozedura ez formalean –edo adiskidetzeko ekitaldi eta/edo bitartekotza-prozeduran– parte hartu duten pertsona guztiek kexatzeko eta anonimo mantentzeko duten eskubidea bermatu beharko da.

Asimismo, en cualquiera de las fases del procedimiento se deberá garantizar el derecho a la queja y el anonimato de todas las personas que hayan participado en un procedimiento informal -o de conciliación y/o mediación- o formal -o de investigación y resolución de conflictos-.

2. Prozedura.

Prozedura hau ezartzean, helburu hauek lortu nahi ditugu: arintasunez eta azkartasunez jokatzea, eragindako pertsonen sinesgarritasuna ematea eta horien intimitatea, konfidentzialtasuna eta duintasuna babestea. Era berean, prozedura honen bidez biktimaren babes nahikoa erdietsi nahi da, segurtasunari eta osasunari dagokienez, egoera horren ondorio izan daitezkeen arazo fisiko zein psikologikoak kontuan hartuta.

2. Procedimiento.

El presente procedimiento se establece con vocación de ser ágil y rápido, de otorgar credibilidad y de proteger la intimidad, confidencialidad y dignidad de las personas afectadas. Asimismo, quiere procurar la protección suficiente de la víctima en cuanto a su seguridad y salud, teniendo en cuenta las posibles consecuencias, tanto físicas como psicológicas, que se deriven de esta situación.

Prozedura edo protokolo honen ondorioetarako, laneko jazarpenaren susmotzat joko dira erakunde honetako kide den pertsona bat laneko jazarpena

A los efectos de este procedimiento o protocolo se entiende por sospecha de acoso laboral en el trabajo las conjeturas fundadas en apariencia o viso de

jasaten ari dela susmatzen denean, egiaren zantzua duten susmoak direnean, dokumentu honetan, Kontzeptuak–Definizioak atalean adierazitakoaren arabera.

2.1. Prozedurari hasiera ematea.

Sexu-jazarpena ustez jasan duen biktimak salaketa helaraziko dio, ahoz edo idatziz, horretarako berariaz prestatutako ereduan (I. eranskina), Batzordeko edozein kideri, zuzenean edo hirugarren pertsonaren bitartez (Giza Baliabideen Arloa, hierarkian nagusia dena –zentroko edo unitateko arduraduna edo gelazainburua–). Era berean, hala nahi badu, aipatutako inprimakia bete ahal izango du berak bakarrik edo Batzordeko edozein kiderekin edo hemen deskribatutako pertsonekin batera.

Salaketa egitean, hurrengo atalean deskribatuta dauden bi prozeduretako bat aukeratu ahal izango da. Hau da, prozedura ez-formala (edo adiskidetzeko ekitaldi eta/edo bitartekotza-prozedura) edo prozedura formala (edo gatazkak ikertu eta konpontzekoa) hasi nahi dela adierazi beharko da. Azken prozedura honi ere hasiera eman ahal izango zaio prozedura ez-formala salaketa egin duenarentzat irtenbide gogobetegarririk gabe amaitzen denean, edo salatutako pertsonak ez duenean betetzen edo errespetatzen proposatutako irtenbidea, III.2.2.1. atalean adierazten den bezala.

Era berean, komenigarria da ahalik eta zehaztasun handiena duen gertakarien zerrenda bat aurkeztea, jaso daitezkeen frogak guztiekin, eta lekukoak identifikatzea, ahal bada. Egokitzen jotzen bada, salaketaren kopia bat langileen legezko ordezkariari helarazi ahal izango zaio, edo adierazten den sindikatura, kideguz egonez gero.

Halaber, erakundearen edozein pertsonak salaketa egin ahal izango du, sexu-jazarpen edo sexuaren ziozko jazarpenaren berri badu.

Giza Baliabideen Arloan salaketak erregistratu eta zenbaituko dira, Batzordeari helarazteko, eta araudi honi buruzko informazioa emango zaie hala eskatzen duten pertsonen. Bestalde, hiru hilean behin, araudi honen babespean aurkeztutako salaketei eta horien egoerari buruzko informazioa emango zaio Osasun eta Segurtasuneko Batzordeari.

verdad de que una persona miembro de este Organismo está sufriendo acoso en su ámbito laboral, en los términos que se indican en el apartado de conceptos – definiciones de este documento.

2.1 Inicio del Procedimiento

La presunta víctima de acoso sexual podrá hacer llegar su denuncia, bien verbalmente bien por escrito en el modelo establecido al efecto (adjunto como Anexo I) a cualquiera de las personas que componen la Comisión, bien directamente o bien a través de una tercera persona (Área de Recursos Humanos, superior jerárquico –Responsable de Centro, de Unidad o Gobernanta-). Asimismo, si así lo desea podrá cumplimentar dicho impreso junto con cualquiera de las personas de la comisión o de las aquí descritas, o bien cumplimentarlo ella misma.

Al realizar la denuncia se podrá optar por una de las dos clases de procedimientos que se describen en el siguiente apartado. Es decir, por iniciar un procedimiento informal (o de conciliación y/o mediación) o especificar que se desea que se de inicio a un procedimiento formal (o de investigación y resolución de conflictos). Este último también se podrá iniciar una vez finalizado un procedimiento informal sin solución satisfactoria para la persona denunciante o porque la solución propuesta no sea cumplida o respetada por la persona denunciada, tal como se indica en el apartado III.2.2.1.

Asimismo, conviene aportar un listado de incidentes lo más detallado posible, con cuantas pruebas sea posible así como la identificación de testigos si los hubiera. En el supuesto de que lo considere oportuno una copia de la denuncia podrá ser trasladada a la representación legal de los trabajadores o, en caso de estar afiliada a alguno al sindicato que indique.

Además, cualquier persona de la organización que tenga conocimiento de alguna situación de acoso sexual o por razón de sexo, podrá denunciarlo también.

El Área de Recursos Humanos registrará y numerará las denuncias, a efectos de su traslado a la Comisión y facilitará información sobre la presente normativa a las personas afectadas que la soliciten. Asimismo, con carácter trimestral se dará cuenta al Comité de Salud y Seguridad de las denuncias presentadas al amparo de la presente normativa y de su situación.

2.2. Prozedura motak

Jarduteko bi bide ezarri dira. Ustez jazarpena jasan duen pertsonak behean azaldutako bi prozeduretako bat aukeratu ahal izango du, aldi berean edo geroago auzibidea edo administrazio-bidea hasita baztertu gabe.

2.2.1. Prozedura ez-formala – Adiskidetzea eta/edo bitartekotza

Prozedura mota honen helburua arazoa hasiera batean era ez formalean konpontzea izango da, adiskidetzeko ekintzaren bidez edo/eta bitartekotzaren bidez, betiere eragindako pertsona ados badago.

2.2.1.a) Izapidetzea

Batzordeko kide bat, batzordeak berak izendatua, edo hirugarren pertsona bat nahiago bada (Giza Baliabideen Arloa, hierarkian nagusia dena – zentroko edo unitateko arduraduna edo gelazainburua–) arduratuko da eragindako pertsonarekin hitz egiteaz eta jarduteko prozedura gidatzeaz, jazarpen-egoera argitu eta bi alderdiek onartutako irtenbide bat lortzearen.

Kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, arazoa konpondu ahal izango da jokabide okerra duen pertsonari argi eta garbi azalduz jokabide hori ez dela onargarria, iraingarria edo deserosoa dela, edo lanaren garapenean eragina duela, eta hori nahikoa izan daiteke.

2.2.1.b) Amaiera eta neurriak ezartzea

Hamabost eguneko epean, salaketa aurkezten den egunetik hasita, amaitutzat emango da prozesua.

Salaketaren sendotasuna balioetsi behar da, eta prozesu ez-formalaren helburua lortu den ala ez adierazi; era berean, egokia bada, egokitzen jotzen diren jarduerak proposatuko dira, prozedura formala hasita barne, salaketa egin duen pertsona gogobeteta geratzen ez bada proposatutako irtenbidearekin, edo irtenbidea betetzen ez badu jazarpena egiten duen pertsonak.

2.2 Clases de Procedimiento

Se establecen dos cauces de actuación. La persona supuestamente acosada podrá utilizar cualquiera de los dos procedimientos que a continuación se detallan, sin perjuicio de la utilización paralela o posterior de la vía judicial o administrativa oportunas.

2.2.1 Procedimiento informal – Conciliación y/o Mediación

El objetivo de este tipo de procedimiento será resolver el problema en un primer momento de manera informal, mediante la conciliación y/o la mediación, siempre y cuando la persona afectada entienda que es factible.

2.2.1.a) Tramitación

Una persona perteneciente a la comisión, designada por la misma, o bien si lo prefiere a través de una tercera persona (Área de Recursos Humanos, superior jerárquico -Responsable de Centro, de Unidad o Gobernanta-), será la encargada de entrevistarse con la persona afectada y conducir el procedimiento de actuación, con la finalidad de conseguir el esclarecimiento de la situación de acoso y alcanzar una solución aceptada por ambas partes.

En función de las circunstancias del caso, será posible y suficiente para solucionar el problema el hecho de explicar claramente a la persona que muestra el comportamiento indeseado que esa conducta no es bien recibida, que está resultando ofensiva o incómoda, o interfiere en el desarrollo del trabajo.

2.2.1.b) Conclusión y Aplicación de medidas

En el plazo de quince días naturales, contados a partir de la presentación de la denuncia, se dará por finalizado el proceso.

Es necesario que haya sido valorada la consistencia de la denuncia, indicando la consecución o no de la finalidad del proceso informal y, en su caso, se propondrán las actuaciones que se estimen convenientes, incluso la apertura de un procedimiento formal en el caso que la persona denunciante no quede satisfecha con la solución propuesta o la misma sea incumplida por quien está acosando.

2.2.2. Prozedura formal – Gatazkak konpontzea

Prozedura formalaren helburua arazoa konpontzea da, horretarako egokiak diren irtenbideak emanda eta egitateak berariaz jasota dagokion ondorioetarako izapidetutako espediente batean. Irtenbide edo proposamen horiek diziplinazkoak izan daitezke edo, bidezkoa bada, dagokien auzibidera eraman daitezke.

2.2.2.a) Izapidetzea

1.- Gehienez ere bost laneguneko epean, informazio-espediente bat zabalduko da, eta Batzordeak aurretiazko ikerketak hasiko ditu, gertatutakoa egiaztatzeko eta/edo aztertzeko.

Ikerketa horiek gehienez ere 15 laneguneko epearen barruan burutuko dira, salaketa jasotzen den egunaren biharamunetik hasita, baldin eta egitateen inguruko ikerketarako epea behar den denboraz luzatu behar ez bada. Hala behar izanez gero, espedientean jasota utzi behar dira berandutzaren arrazoiak.

Batzordeak, alderdiei ez ezik, erakundeko kide diren edo erakundearekin lotura duten eta egokitzen jotzen dituen pertsonen entzuno die.

2.- Batzordeak berehala helaraziko dio salatutako pertsonari salaketaren izaera eta edukari buruzko informazio xehatua, jaso izana adierazteko beharraz, eta salaketari erantzuteko lanegun bateko epea emango dio.

3.- Aldi berean, erakundeko organo eskudunari jakinaraziko zaio salaketa egin dela eta jardueren hasiera eman zaiela.

2.2.2.b) Kautelazko neurriak

Prozedura hori izapidetzen den bitartean, eta itxi arte, eta betiere jazarpenaren zantzu nahikorik badago eta egokitzen jotzen bada, Batzordeak Uliazpiko organo eskudunari eskatuko dio, kautelazko izaeraz, ustezko biktima eta ustezko jazarlea banatzea, edo bidezkoa den beste neurri bat hartzea, baldin eta biktimarentzat hori inolaz ere kaltegarria ez bada, edo bere lan-baldintzetan galerarik ekartzen ez badu edo baldintza horietan funtsezko aldaketa sortzen ez badu.

2.2.2 Procedimiento formal – Resolución de Conflictos

El objetivo del procedimiento formal será resolver el problema adoptando las soluciones que correspondan y dejando constancia expresa mediante un expediente instruido al efecto. Tales soluciones o propuestas podrán ser de carácter disciplinario o, en su caso, de traslado a la vía judicial correspondiente.

2.2.2.a) Tramitación

1º.- En el plazo máximo de 5 días laborables, se procederá a la apertura de un expediente informativo y la Comisión iniciará las investigaciones preliminares, encaminadas a comprobar y/o averiguar los hechos.

Estas investigaciones se llevarán a cabo en un plazo máximo de 15 días laborables contados a partir del siguiente a la recepción de la denuncia, salvo que la investigación de los hechos obligue a alargar el plazo por el tiempo necesario. En este caso se deberá dejar registrado en el expediente las causas que han motivado la demora.

La Comisión dará audiencia, además de a las partes, a cuantas personas de la organización o relacionadas con la misma entienda necesario.

2º.- De manera inmediata, por parte de la Comisión se trasladará a la persona denunciada la información detallada sobre la naturaleza y contenido de la denuncia, con acuse de recibo, concediéndole un plazo de 1 día laboral para contestar a la misma.

3º.- Al mismo tiempo, se pondrá en conocimiento del órgano competente del organismo la existencia de la denuncia y el inicio de las actuaciones.

2.2.2.b) Medidas cautelares

Durante la tramitación de este procedimiento y hasta el cierre del mismo, y siempre que existan indicios suficientes de la existencia de acoso y lo considere necesario, la Comisión solicitará al órgano competente de Uliazpi, con carácter cautelar, la separación de la presunta víctima y de la presunta persona acosadora u otra medida que se considere oportuna, sin que en ningún caso esto pueda suponer para la víctima un perjuicio o menoscabo en sus condiciones de trabajo, ni modificación sustancial de las mismas.

2.2.2.c) Ikerketa

Batzordeak espediente bat izapidetuko du, salatutako egitateak miatzearren; horretarako, ikerketa inpartziala egingo du, egitateen sinesgarritasuna eta larritasuna aztertzeko.

Ikerketa egiten den bitartean, Batzordea osatzen duten pertsonak egokitzat jotzen dituzten baliabideak erabili ahal izango dituzte salatutako gertakariak argitzearren (elkarrizketak bi alderdietako edozeinekin, gertatutakoaren berri izan duten pertsonekin, adituekin kanpoko aholkularitza jasotzeko,...), eta konfidentzialtasuna mantenduko dute beti jarduera guztietan.

Bilkura guztiei buruzko akta jasoko da bilera amaitzerakoan, parte-hartzaile guztiek sinatu beharko dutela.

Prozedura egiten den bitartean, Batzordeak hautematen badu miatzen ari diren egitateak errepikatu edo gaizkiagotzen direla, Uliazpiko organo eskudunari proposatu ahal izango dio kautelazko neurriak hartzea, egokiak diren jarduerekin jarraitzeari utzi gabe.

2.2.2.d) Ondorioen txostena

Salaketa aurkezten denetik hasi eta 30 egun naturaleko epean, Batzordeak frogan ikerketa eta balioespena amaitu eta gero, ikertutako jazarpen-suposizioari buruzko txostena idatzi eta onartuko du. Txostenean, atera diren ondorioak, egitatean aurkitutako inguruabar larriak edo aringarriak adieraziko dira, eta egokia bada, Uliazpiko Zuzendaritza premiatuko da salatutako pertsonaren aurkako diziplinazko prozedura zabal dezan; horretarako, eta izan ditzakeen ondorioetarako, espediente osoa helaraziko zaio.

2.2.2.e) Alderdiak jakinaren gainean jartzea

Batzordeak erabakitzen duena salaketa jarri duenari nahiz salatutako pertsonari jakinaraziko zaie.

IV. Neurriak ezartzea

Erakundeko organo eskudunak ezarriko ditu egokiak diren diziplinazko neurriak, bidezkoa bada, eta diziplinazko espedientea izapidetu eta gero, hala badagokio.

Diziplinazko espedientea izapidetzen duenak bere egingo du Batzordeak idatzitako txostena, eta

2.2.2.c) Investigación

La Comisión instruirá un expediente en averiguación de los hechos denunciados, realizando para ello una investigación imparcial en la que se analizarán la verosimilitud y gravedad de los mismos.

A lo largo de la investigación, las personas que componen la Comisión podrán utilizar los medios que estimen convenientes y oportunos para esclarecer los hechos denunciados (entrevistas con cualquiera de las partes, con personas que hayan tenido conocimiento de lo ocurrido, asesoramiento externo de personas expertas,...) manteniendo siempre la confidencialidad en todas sus actuaciones.

De todas las sesiones se levantará acta en el momento de la finalización de la reunión, siendo firmada en el acto por todas las personas presentes.

Si en el transcurso del procedimiento la Comisión percibiese que los hechos investigados pueden continuar o agravarse, podrá proponer al órgano competente de Uliazpi la adopción de medidas cautelares, sin perjuicio de continuar con las actuaciones que le correspondan.

2.2.2.d) Informe de conclusiones

En el plazo máximo de 30 días naturales contados a partir de la presentación de la denuncia, la Comisión, finalizada la investigación y la valoración de las pruebas, elaborará y aprobará el informe sobre el supuesto de acoso investigado, en el que se indicarán las conclusiones alcanzadas, las circunstancias agravantes o atenuantes observadas en el mismo, e instará, en su caso, a la Presidencia de Uliazpi la apertura del procedimiento disciplinario contra la persona denunciada, trasladándole el expediente completo a los efectos oportunos.

2.2.2.e) Comunicación a las partes

La decisión que adopte la Comisión será comunicada tanto a la persona denunciante como a la denunciada.

IV. Aplicación de Medidas

Corresponderá al órgano competente del organismo la imposición, en su caso y tras la instrucción del expediente disciplinario oportuno si procede, de las medidas disciplinarias que correspondan.

El Instructor del correspondiente expediente disciplinario hará suyo el informe elaborado por la

egitateak argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak soilik egingo ditu, baldin eta Batzordearen txostena aztertu eta gero egitateak argiak ez badira; nolana ere, Batzordeak frogatutako egitateak diziplinazko espedienteari gehituko zaizkio, espedientearen izapidegileak agindu ditzakeen froga osagarriak baztertu gabe.

Era berean, espedientea egin zaien pertsonen eta langileen legezko ordezkari entzuteko izapideak betetzat joko dira, baldin eta izapidegileak, ofizioz edo espedientea ireki zaien pertsonen eskatuta, berriro egin behar direla erabakitzen ez badu. Dena dela, espedientea egin zaion pertsonak sindikaturen bateko kidea dela jakinarazten badu, sindikatuari entzuteko izapidea ere bete ahal izango da.

Batzordearen proposamenak lotesleak izango dira Uliazpirentzat, bai diziplinazko espedientea zabaltzeari dagokionez, bai antolakuntza-neurriek dagokienez.

Batzordeak berak zainduko du ezarritako neurriak bete daitezzen.

V. Pertsonen eskubidea osasuna osorik babesteko.

Uliazpik laneko jazarpenaren eta/edo salaketa faltuaren biktimak izan diren langileen osasuna behar bezala babesteko dela eta suspertzeko laguntza psikologikoa emango zaiela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

VI. Faltak eta zigorrak

1. Irizpide orokorrak.

a) Laneko jazarpena egin dela egiaztatzeak diziplinazko erantzukizuna eta, hala badagokio, erantzukizun penala sorraraziko du, indarrean dagoen legeria ezargarriaren arabera.

b) Egitateak egiaztatzerik ez dagoenean, ez da salaketa jarri duen pertsonaren aurkako errepresaliarik hartuko eta ez da salaketa jarri duten, lekuko izan diren eta/edo ikerketan parte hartu duten pertsonen aurkako jokabidea dakarren neurriak hartuko.

c) Egotzitakoa ezin gezurtatzeko frogen bidez gezurrezkoa dela egiaztatzen bada, egokia den diziplinazko espedientea zabalduko da.

Comisión, debiendo llevar a cabo solamente aquellas actuaciones que considere precisas para el esclarecimiento de los hechos si éstos no resultan claros a la vista del informe de la Comisión, si bien los hechos probados por la Comisión se incorporarán al expediente disciplinario, sin perjuicio de las pruebas complementarias que, en su caso, pudiera ordenar el Instructor del mismo.

Asimismo, se darán por cumplidos los trámites de audiencia con la o las personas expedientadas y con la representación legal del personal, salvo que por parte del instructor, bien de oficio o bien a instancia de la o las personas expedientadas, se determine volver a realizarlos. Ello sin perjuicio del trámite de audiencia al sindicato correspondiente si la persona expedientada comunica su condición de afiliada.

Las propuestas de la Comisión serán vinculantes para Uliazpi, tanto en cuanto a la apertura de expediente disciplinario como las referentes a medidas organizativas.

La propia Comisión velará por el cumplimiento de las medidas que en su caso se hayan impuesto.

V. Derecho de las personas a una protección integral de la salud.

Uliazpi adoptará las medidas necesarias para garantizar una protección adecuada de la salud de sus trabajadores y trabajadoras que hayan sido víctimas de acoso laboral y/o falsa denuncia, así como el apoyo psicológico necesario para intentar su restablecimiento.

VI. Faltas y Sanciones

1. Criterios comunes.

a) La constatación de la existencia de acoso laboral dará lugar a responsabilidad disciplinaria y, en su caso, penal, según la normativa legal vigente que resulte de aplicación.

b) Cuando la constatación de los hechos no sea posible, en ningún caso se represaliará a la persona denunciante ni se adoptarán medidas que supongan un tratamiento desfavorable a las personas que han denunciado, atestiguado y/o participado en la investigación.

c) Cuando se constatare de forma fehaciente la falsedad de las imputaciones se abrirá el correspondiente expediente disciplinario.

d) Batzordeari salaketak oinarriak dituela adierazteko behar diren frogak biltzea ezinezkoa bazaio ere, salaketa jarri duen pertsonari lanpostua aldatzea eskainiko zaio, ahal bada.

2. Faltak

2.1. FALTA hauek OSO LARRIAK izango dira:

a) Sexu-xantaia, hau da, enplegua eskuratzeko, enplegu-baldintza bat lortzeko edo enplegua mantentzeko baldintza izatea biktimak sexu-izaerako ekintza bat betetzea, baldintzatze horretarako egindako mehatxu esplizitu edo inplizitua egiaz betetzen ez bada ere.

b) Ingurune-jazarpena eta jazarpen sexista, hau da, larderiazkoa, etsaitasunezkoa edo umiliagarria den eta sexu-edukia duen lan-ingurunea sortzea, baldin eta egitatearen larritasuna eta gainerako inguruabarrak direla-eta, eta proportzionaltasunaren printzipioa kontuan hartuta, hutsegite oso larria bada. Edonola ere, oso larritzat hartuko da eraso fisikoa.

c) Errepresaliak hartzea salaketa jarri duten, lekuko izan diren eta jazarpenari buruzko ikerketan lagundu edo parte hartzen duten pertsonen aurka, edo mota horretako edozein jokabideri aurka egiten dioten pertsonen kontra, jazarpenaren jasotzailea edo hirugarren pertsona izan.

d) Delitua eragin duten egitateak, salatutako pertsona zigortzeko epaileak epaia eman eta gero.

2.2. FALTA hauek LARRIAK izango dira:

a) Gonbite lizunak edo konprometigarriak.

b) Lankideei zuzendutako lizunkeriazko keinuak.

c) Beharrezkoa ez den ukipen fisikoa, igurtziak.

d) Toki pribatuetan –komuna, aldagelak– pertsonen ezkutuka begiratzea.

e) Pertsonari eta bere lanari buruz jendaurrean eta behin eta berriro aipu txarrak egitea.

f) Etengabeko iruzkin iraingarriak itxura fisikoari ideologiari edo sexu-aukerari buruz.

g) Kontraesankorrek eta, beraz, aldi berean betetzen ezinezkoak diren aginduak ematea.

d) Aun cuando la Comisión no fuera capaz de acumular las pruebas necesarias para que la denuncia pueda ser declarada fundada, se facilitará a la persona denunciante el cambio de puesto si ello resultara posible

2. Faltas

2.1. Serán consideradas como MUY GRAVES las siguientes FALTAS:

a) El chantaje sexual, es decir, el condicionamiento del acceso al empleo, de una condición de empleo o del mantenimiento del empleo, a la aceptación, por la víctima de un favor de contenido sexual, aunque la amenaza explícita o implícita en ese condicionamiento no se llegue a cumplir de forma efectiva.

b) El acoso ambiental y el acoso sexista, es decir, la creación de un entorno laboral intimidatorio, hostil o humillante de contenido sexual o de contenido sexista, cuando, por la gravedad del hecho y demás circunstancias concurrentes merezca, en atención al principio de proporcionalidad, la consideración de incumplimiento muy grave. Se considerará en todo caso muy grave la agresión física.

c) La adopción de represalias contra las personas que denuncien, atestigüen, ayuden o participen en investigaciones de acoso, al igual que sobre las personas que se opongan a cualquier conducta de este tipo, ya sea sobre sí mismas o frente a terceras personas.

d) Los hechos constitutivos de delito después de dictarse sentencia judicial condenatoria de la persona denunciada.

2.2. Se considerarán como GRAVES las siguientes FALTAS:

a) Invitaciones impúdicas o comprometedoras.

b) Gestos obscenos dirigidos a compañeros o compañeras.

c) Contacto físico innecesario, rozamientos.

d) Observación clandestina de personas en lugares reservados, como servicios o vestuarios.

e) Realización de descalificaciones públicas y reiteradas sobre la persona y su trabajo.

f) Comentarios continuos y vejatorios sobre el aspecto físico, la ideología o la opción sexual.

g) La impartición de órdenes contradictorias y por tanto imposibles de cumplir simultáneamente.

- h) Agindu iraingarriak ematea.
- i) Gehiegizko eta etengabeko zelatatzea ekartzen duten ekintzak.
- j) Pertsona bat bakartzeko eta isolatzeko agindua.
- k) Larritasun-maila bereko bestelako ekintzak.

2.3. FALTA hauek ARINAK izango dira:

- a) Adierazpen iradokitzaille eta ezatseginak, itxurari buruzko txisteak edo adierazpenak eta eduki lizuna duten nahitako ahozko abusua.
- b) Irudi pornografikoak erabiltzea lantoki eta lantresnetan, falta larriak ez direnean.

2.4. Mota honetako falten aringarri eta larrigarri diren inguruabarrak.

- a) Baldintza larrigarri kalifikatutzat joko dira hierarkiako nagusitasunaz baliatuta abusua egitea, jokabide iraingarriak mantentzea, biktimak irtenbidea emateko prozedurak erabili eta gero. Horrez gain, azpikeria ere larrigarria izango da (hau da, jarduteko, subjektu aktiboaren ukigabetasuna zuzenean ziurtatzera bideratutako baliabideak edo jokamoldeak erabiltzea).
- b) Inguruabar aringarria izango da iraindutako pertsonari ordaina eman edo egitatea aitortzea, damu naturalak bultzatuta, edo faltaren ondorioak murriztu nahian.
- c) Dena dela, Hitzarmen Kolektiboko “Diziplina-araubidea” I. eranskinean eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuan ezarritakoa ere bete beharko da.

3. Zigorrak.

- a) Proporzionaltasunaren printzipioaren arabera ezartzen diren zigorrak Hitzarmen Kolektiboko “Diziplina-araubidea” I. eranskinean eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuan ezarritakoak izango dira.
- b) Protokoloa ez ezagutzeak, hutsegiteak, eragindako egoeraren pertzepzioa okerra izateak, eta abarrek eragindako zigorren osagarri, lan-ordutegitik kanpoko prestakuntzako jardunaldietan parte hartzea ezarri ahal izango da, Batzordeak neurri hori egokitzen jotzen badu egindako urraketak errepika daitezen saihesteko.

- h) La impartición de órdenes vejatorias.
- i) Las actitudes que comporten vigilancia extrema y continua.
- j) La orden de aislar e incomunicar a una persona.
- k) Cualquier otra del mismo grado de gravedad.

2.3. Se considerarán LEVES las siguientes FALTAS:

- a) Observaciones sugerentes y desagradables, chistes o comentarios sobre la apariencia o aspecto, y abusos verbales deliberados de contenido libidinoso.
- b) Uso de imágenes o pósteres pornográficos en los lugares y herramientas de trabajo siempre que no se consideren faltas graves.

2.4. Circunstancias atenuantes y agravantes específicas de este tipo de faltas.

- a) Se considerará en todo caso condición agravante cualificada, el abuso de situación de superioridad jerárquica, así como la reiteración de las conductas ofensivas después de que la víctima hubiera utilizado los procedimientos de solución. También se considera agravante la alevosía (esto es, empleo de medios, modos o formas en la ejecución que tiendan directamente a asegurar la indemnidad del sujeto activo).
- b) Se considerará circunstancia atenuante el haber procedido, por impulsos de arrepentimiento espontáneo a reparar o disminuir los efectos de la falta, dar satisfacción a la persona ofendida, o a confesar el hecho.
- c) Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el Anexo I “Régimen disciplinario” del Convenio Colectivo y de lo establecido en el Estatuto Básico del Empleado Público al respecto.

3. Sanciones.

- a) Las sanciones correspondientes en función del principio de proporcionalidad serán las establecidas en el Anexo I “Régimen disciplinario” del Convenio Colectivo y en el Estatuto Básico del Empleado Público.
- b) Las sanciones derivadas del desconocimiento del Protocolo, equivocaciones, percepción equivocada de la situación provocada, etc., podrán ser complementadas por jornadas de formación fuera de horas de trabajo cuando esta medida sea considerada adecuada por la Comisión para evitar la repetición de las infracciones de que se trate.

c) Prozedura hau erabiltzea ez da eragozpena izango biktimak, egokia iritziz gero, babes-prozedura judizialaz baliatzeko, "babes judizial eragingarria" funtsezko eskubidean oinarrituta.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Uliazpiren esparruan laneko jazarpena prebenitzeko neurri hauek barnean hartzen dituen prozeduraren faseak Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen abenduaren 26ko 30/1992 Legeak ezespenei buruz ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Bigarrena. Araudi hau aldatu ahal izango da, Osasun eta Segurtasuneko Batzordeak, bidezkoa bada, egin ditzakeen proposamenetan oinarrituta.

Hirugarrena. Eragindako langile guztiek protokolo hau ezagutzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira. Era berean, ahaleginak egingo dira onuradunek eta/edo horien senideek nahiz erakunde hornitzaileek edo lankidetzan ari direnek ezagutu dezaten Uliazpik gai honen inguruan duen politika.

c) La utilización de este procedimiento no impedirá en absoluto a la víctima la utilización en el momento que considere conveniente el procedimiento judicial de tutela correspondiente en base al derecho fundamental de "tutela judicial efectiva".

Disposiciones Finales

Primera. Las diferentes fases del procedimiento que incluyen las presentes medidas de prevención del acoso laboral en el ámbito de Uliazpi se registrarán por lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de diciembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento Administrativo Común relativas a recusaciones, etc.

Segunda. La presente Normativa podrá ser objeto de modificaciones en base a propuestas que, en su caso, pudiera efectuar el Comité de Salud y Seguridad.

Tercera. Se procederá a adoptar las medidas necesarias para garantizar el conocimiento de este protocolo por parte de todo el personal afectado. Asimismo, se procurará por todos los medios posibles que tanto las personas usuarias y/o sus familias, así como las entidades proveedoras o colaboradoras conozcan la política de Uliazpi en esta materia.

I. ERANSKINA/ ANEXO I			
JAZARPEN MORALA, SEXU-JAZARPENA EDO SEXUAREN ZIOZKO JAZARPENA SALATZEKO EREDUA/ MODELO DE DENUNCIA PARA CASOS DE ACOSO MORAL, SEXUAL O ACOSO POR RAZÓN DE SEXO			Data/ Fecha:
Salaketa-egilea/ Persona denunciante: (Izena edo kodea)/ (Nombre o código)			Emakumea/ mujer: <input type="checkbox"/> Gizona/ hombre: <input type="checkbox"/>
Pertsona salatua/ Persona denunciada: (Izena edo kodea)/ (Nombre o código)			Emakumea/ mujer: <input type="checkbox"/> Gizona/ hombre: <input type="checkbox"/>
<i>EGITATEEN IDENTIFIKAZIOA/ IDENTIFICACIÓN DE LOS HECHOS</i>			
Data/ Fecha	Ordua/ Hora	Lekua/ Lugar	Deskribapena/ Descripción
<i>AURKEZTUTAKO FROGAK/ PRUEBAS APORTADAS</i>			
<i>LEKUKOAK/ LAS Y LOS TESTIGOS</i>			
Salaketa-egilearen sinadura/ Firma de la persona denunciante			Salaketa jaso duenaren sinadura/ Firma de quien recibe la denuncia

2. ERANSKINA / ANEXO 2

ADIERAZLEEN ZERRENDA / LISTADO DE INDICADORES

C.- LAGUNTZA SISTEMA SISTEMA DE APOYO

Azalpena / Descripción

1. PERTSONEN KUDEAKETA GESTIÓN DE PERSONAS

C.1.05	Prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutenen kopurua/ Número de participantes en acciones formativas
C.1.07	Hobekuntza-taldeetan parte hartzen duten pertsona desberdinen kopurua/ Número de personas distintas que participan en grupos de mejora
C.1.10	Parte-hartzea prestakuntza-ekintzen balioespenean eta proposamenean (Kontratua)/ Participación en la valoración y propuesta de acciones formativas (Contrato)
C.1.12	Parte-hartzea prestakuntza-ekintzen balioespenean eta proposamenean (Itxaronzerrenda)/ Participación en la valoración y propuesta de acciones formativas (Lista de Espera)
C.1.14	Langileek jasotako prestakuntza dela-eta duten poztasun-maila (galdeketa) (kontratua)/ Grado de satisfacción del personal con la formación recibida (encuesta)(Contrato)
C.1.16	Langileek jasotako prestakuntza dela-eta duten poztasun-maila (galdeketa) (itxaronzerrenda)/ Grado de satisfacción del personal con la formación recibida (encuesta)(Lista de espera)
C.1.22	Kategoria-sustapenean parte hartzen duten pertsonen kopurua/ Número de personas que promocionan de categoría
C.1.24	Arduraldi-erregimena behin betiko handitzen duten pertsonen kopurua/ Número de personas que incrementan su régimen de dedicación con carácter definitivo
C.1.27	Behin betiko kontratua duten pertsona minusbaliatuen kopurua/ Número de personas contratadas con minusvalía con carácter fijo
C.1.34	Gainesfortzua egiteagatik gertatutako istripuen indizea/ Indice de accidentes causados por sobreesfuerzo
C.1.36	Bizidunek eragindako istripuen indizea/ Indice de accidentes causados por seres vivos
C.1.38	<i>In itinere</i> istripuen indizea/ Indice de accidentes in itinere
C.1.40	Istripuen guztizkoa/ Número total de accidentes